

"Occitania libra"

Montsegur, catharoak, Occitania... maiz aipatuak azken bolara honetan. "Saint Louis-urtea" da aurrean Frantziak; eta Louis IX-garrena gutziz lotuta dago catharo-en kontrako gurutada cdoltsu eta izugarriekin.

Hau dela-ta, sorpresa batzuk gertatu dira; eta denetan haundiena hau izan da beharbada: Occitanian (alegia, "langue d'oc"-ez mintzoten Frantziako eskualdean: Biarnotik Savoye-raino duan Hegoaldeko departamendu-ferroakda lizean) Parisen kontrako herra gorantz doala, eta ez beheantz, "impérialisme français" derizatena aipatzen bait da.

Ea genekien Parti Nationaliste Occitan delakoaren herri: orain dela urte batzuk mintzatu zintzen ni, laburki bederen, Fontan jaunaz. Baina, egia esateko, ez orduan eta ez geroztik ere, ez genuen eskaldunok "occitaniatar abertzale-tasuna" oso zinez hartu. Guk geuk ere ez genuen sinesten.

Orain dela aste batzuk, ordea, behin eta berri itzazuri ditugu Occitaniako herrizale pizkundearen gora-beherak. Eta joan den astean, Irailaren 20-ko banakoan, orrialde oso bat eskaini digu "Le Monde"k arazoaren egoeraz; denen bilduma bat Lacouture jaunak eginez (Lacouture hauxe da, besteren artean, Ho-Chi-Minh zenaren bizi-idazlea). Aitor dut, eta aitoritu beharra dute gehienek; ez genuen uste; orain dela urte batzuk, ez genuen honelakorik sinetsiko egia da.

Frantziak, jakina denez, bi herri nagusi zeuden Mende-Erdian: frain-tziar batetik ("langue d'oïl" zerabilena), Parisen ingurukoa; eta occitaniatarra ("langue d'oc" ez mintzo), Tolosa-ren ingurukoa (Toulouse).

"Catharo"en Guruzadakoan, bafera hil ziren kristau manikeismoak. (A)bi hiriarren eskualdean finkatua, eta horretatik "albigois, albigen-sis" izena), eta Occitaniaren politikak-askatasuna. Catharoen iraupena eta ihardukiera, Iruñe eta Tolosa garai hartan lotu xamar gertatu-rik, Vasconiako mugetan gertatu ziren gehienik. Catharoen arazoak • Euskal Herria ukitu zuten; eta Montsegur-ko azken defendatzaileen artean (denak gero erre-araziak, jakina denez) euskaldun mordo bat bide zegoen. Gure Jen Etxalde, hain zuzen, honi buruz zer-bait idatzi gogo zuten orain dela urte batzuk, oker ez bagoaz; eta euskaldun catharo zoritzarreko haiek merezi luteke.

Geroztik "Languedoc" delakoa oso frantsesatu zen. Oc-hizkuntza "patois" gisa alde batera utzia zen hirietan, Tolosa-ko loria zaharrak kendaira huts ziruditen, eta Albitarren kontrako Guruzadaren hil-kintza lotsagarriak betirako ahazturik.

Ez da horrela izan, ordea; eta honetxek harrizten ditu batera frantsesak eta frantses ez garenok. Occitaniako P.N.O. delakoa gora doa arauz, eta gazteek hornitzen eta hazkaritzen omen dute, ez arkeologikozale batzuk.

Lacouture jaunak azaltzen duenez, Aude-ko, Herault-eko eta Pyrenées-Orientales-eko murrutuan, endoko jelo hauek irakur daitezke: "Vive le P.N.O.!", "Paisan occitan, lucho o creba", "Occitania libra", eta abar.

Lacouture-ren ustez, hor badago Parisen kontrako "état d'esprit antagoniste" bat; eta ager-arazten duena hau da: "nahasi xamar dagoen kultura eta ekonomia kinka bat". Dionez ere, bukatzeko, gero eta ageriagoak dira kezka horiek Occitaniar: "l'opinion y pousse... le climat y est favorable".

Zer kolore hartu du Occitania-tar pizkunde honek? Bi kolore nagusi, batez ere, Lacouturek berak azaltzen duenez.

Alde batetik, kultura-kutsua: mugimendua hizkuntzaren aldeko burruka gisa agertzen da. Abuztuaren, Montpellier-ko hirian, Oc-hizkuntzari eta literaturari buruzko Biltzar Nagusi bat izan da. Mundu guztitik etorriak, 150 intelektualek, denak occitaneraz mintzatu, Occitaniaren kultura-arazoak arakatu dituzte. Occitaniatarrek, bestalde, "kultura-geozidua" salatzen dute beren aldezkarietan.

Beste alde batetik, ordea, politikak-borronte bat agertzen ari da gaztetan. Eta Lacouture-ren hitzez esateko, "aliénation... exploitation... mépris..." dira entzuten diren hitz saminak.

Aspaldiko "Viure" aldizkariari, orain "Occitania Nova" erantsi zaio, biak ia osoki occitaneraz idatziak; eta federalismoari, sozialismo-joera gainera zaio. Ez da harritzeko, horretara, propaganda-erriak batera zabaltzea abertzaleek eta P.S.U.-koek... Gauza ezaguna da, bestalde, Robert Laffent-en "La Révolution régionaliste" liburua (Gallimard-enean argitaratua) begi onez ikusia izan dela sozialista berriei artean.


Claudio Marti kantazzailearen arrakasta, azkenik, hortik bilatu behar da. Gitarra besoetan, orain dela urte pare bat hasi da Carcassonne-tar hau Occitaniako ingurura egiten; eta nun-nahi aurkitu omen du entzule berorik, zahar eta gazte. Hets. Marti-ren diskoek "Che Guevara"ren irudia dakarte aurrekaldetan, eta ki kolore apaingarri: beltza eta gorria...

Eskoziak eta Mazedoniako gertaerak ezagutzuz, baita Kessovo, Gales eta Breñañoak, baita beste aniz, ezina da honetan guzian Kondaira-joera berri bat ez somatzea. Ezker aldeko etnia-zalatasun hau ez bait da sentonen ezaguerria, gazteen bandera ausarta baitzik.

LARRESORO

Herri-etxeetarako auteskundeen ondoren BELGIKA EDO FEDERATIBISMOAREN EZIÑAK

Federalismoaren aldeko indarrak, hil honen 18-an irietako herri-etxe-etarako eragin diran auteskundeetan garaillé irten dira. Bruselas iri nagusian frantsesedunen Frentea %ko 26-ren autarkiaz jabetu da eta holako gertaera orain dala iru urte ezin konpreni zitekean. Belgikako beste bi alderdian walloniar eta flandandaren Frente bereziak aurrerapide handiak egin dituzte. Alderdi zaharren artean, sozialistak bakarrak eraso honi autsi ahal izan diote eta hori, azkenaldi hontan hoiere federalismoaren alde jokatu dutelako. Beraz, Federalismoaren sistema sartzeko giroa sasoi-tzen dijo Belgikako erreinuan. Baiña sistima-aldaketa horrek ma-kina bat buruaste ekarriko ditu.



FEDERALISMOAREN ATZETIK

Belgikako Estatu Bateratuaren garaia usteltzen dijala dirudi. Bruselaseko auteskundeak biziki adierazi dute izkuntzarekiko etxabaiddak beste arazoak baiño garrantzitsu-agoak izan dirala.

Walloniarren kolonialismoaren bukaera eta Flandandaren indartzea asi ziranetik, urte asko igaro dira. Azkeneko guda nagusiaren ondoren batez ere ipar-aldeko ekonomia indartzen asi zen eta bat batean Walloniarren handitasuna gaitzen. Gaur, oraindik ere, bi Herriak bata bestearekiko morroitzapearen beldurrak eraginda alkarren arteko burrukan ari dira.

Demografiaren aldetik urritzen, industriaren aldatu-beharrak dakar-kin buruastearekin eta garai batean bakarrak erabiltzen zituzten estadia eta ekonomia mekanis-moak gaur berdintasunean Flandandari eskeiñi beharra dutela ikus-terakotan, Wallonitarrak oso mindu-tarkitzen dira.

Bestetik, Flandandarrak, nahiz eta ekonomia aldetik indartsuenak izan eta politikak-influentzia handi baten jabe, oraindik ere lehengo nagusien menpean biziko balira bezela sentitzen dute.

Gogorra jarraitzen du oraindik

ere Estatu bateratuen bi Herri hauek daramaten burroka. Belgika-ko batasuna Flandandaren morroitz-eko oiñarritzen zen eta morroitz-etik irten diranerako batasuna lert-zeko bidean jarri da.

Bi Herri hauek berdintasunera iri-xi diran ezkerre, bi aukera dauka-tze: edo bakoitzak bere Estadia ja-so, edo Federalismoa jo. Lehengo bidea oraingo nehorik ez du artuko; bigarrena berriz, eragozpe-nik gabe ez da aurrera aterako.

FEDERALISMOA EZ DA PASTELA

Federalismoaren sistimaz bi Herri-rietako ez berdin pentsatzeatik daktorie lehen eragozpidetia. Ipar-aldekoak bere kultura dagokien mailan jartzearen federalismoa eraiki nahi dute, ego-aldekoak berriz, beren ekonomia-aren zuzendari eta eragile izatearren.

Hala ere hori ez da eragozpidetia nagusiena. Orain artean ugaritasu-

netik sortu izan da Federalismoa, baiña inoiz edo oso bakan, batak-sunetik. Belgikako batasunetik bit-asunera edo gehienez irutasunera (Bruxelas) eramango duan bidea oso zaila izango da.

Beste aldetik, zer ondore ekonomiko ekarri ditzake Federalismoak? Industrien alkartasunaren arduradun bategi dionez "Belgikak bi iz-kuntza ditu baiñan ekonomia bat". Walloniko altzairu-olak Flandand-aren kaieria ta ikatzari lotura dau-de. Anvers-eko joan-etorrien erdiak Walloniarako egiten dira. Beraz, gi-zaldi bat zehar elkartzutako ekonomia orain zatitu ezkerre zer irabaz-pide atera eto ditek?

Hontan, Wallonitarrak dira kez-katuena. Ekonomi bateratu batean Flandandaren eskutian bere indus-tria eroriko dan beldur baitira. Bere lurraldean aski aberatsa dala ekonomia berpizteko, pentsatzen dute eta bere ekonomia-aren azkeneko itza emateko moduan arkitzen di-ranean, gauzak obeto joango dirala uste dute.

Hor daude, bada, eragozpidetia edo zailtasun batzuk, Federalismoaren sistima ezartzeko.

Bi Herri eta biak errespeta-gar-riak dirala esanda, ez dira gauzak airi errez zuzentzen. Federalismo oso baten deihandarrak ohiartzun handiagoko egiten du ego-aldeko lur-raldeetan eta Batasunarenak, gehi-ago Flandandaren artean, guk hala ez usteerren. Paperak trukatu egin dira. Flandandarrak menpean arkitzen ziranean, bere nortasuna-ren aldeko borroka indartsuagora zan, gaur berriz bestalde. Hala ere, Walloniko federalisten etorkizuna ilunagoa ageri da.

—oO—

Ikusten denez, Federalismoak ere gordetzen ditu bere eziñak. Izkunt-zan finkatutako Federalismoak ez du Wallonitarraren etorkizuna zearo salbatuko. Izkuntzan eta ekonomian finkatutako federalismoak beste es-tadu bateratuaren antzeko egingo du Walloniko federazioa. Walloniak ausarditsua joka beharko luke bide hortatik abiatzeko.

Europak ere lanaren banaketa egoki baten bidez zenbait nazio za-palduen etorkizuna argitu dezake. Baiñan gaurko Merkato Elkartuak daukan sistimarekin utsi hori be-tetzeko bidean jarri eto ditek? Nortzeuk eta zer oiñarritan eraiki nahi duen Europaren Elkartasuna?

D. IZA

Anuar El Sadate, Nasser-en ondorengoa

Anuar El Sadate, Nasser-en lagun zaharra izango da emendik aurrera Ejiptoko Republikako lehendakari. 52 urte ditu (Nasser-ek baiño illa-bete bat gehiago). Erlijio-kutsua duan familia batean jaioa, izlari ona, arabiar abertzale porrokatu. Baiña batez ere, militarra. 1938-gan, militar-eskola utzi bezin laster, Nasser-ekin biltzen asi zan, ea Faruk erregea nola bota eta inge-lesak nola uxatu. Bederatzi milite-rrek utzierazi egin zioten Faruki bere agintarritza eta bederatzi aien artean Anuar El Sadate zegoen. Geroztik beti gora igo da: sozialista alderdiaren buru ere izan zan. Egia esan, bere lagunak olako lekuetan eseri ezkerre, Nasser gauza guzia-ren jaun eta jabe gertatzen zan.

Esan ere esan izan zan garai batean El Cairo-n, Sadate, Nasserren astoa zala. Zigortua ere izan zan, negozio zikiñetan bat batean arra-patu zutenean, militarra zalarik...

Baiña orain rusok zer nahi dute? Bere eskupean lehendakari bigun eta errikoi bat euki, Nasserren la-guna zalako El Sadate, erriak maite du.

